

## Hegoaldeko zuhaitz-igelari buruzko eginbideak amaitutzat jotu Fiskaltzak

(...) Pasa den abuztuan Gipuzkoako Ingurugiro-fiskalak hegoaldeko zuhaitz-igelaren egoerari buruzko eginbideei hasiera eman zien. Naturaren defentsarako hainbat taldek Eusko Jaurlaritzari, Gipuzkoako Diputazioari eta Donostiako Udalari behin baino gehiagotan eskatu zieten Gurelesako urtegia Biotopo Babestu izenda zezaten, han bizi eta ugaltzen baita hegoaldeko zuhaitz-igela, galtzeko arriskuan dagoen anfibioa. (...)

Iparlat enpresak Neinor enpresa sustatzaileari saldu zizkion igela bizi den lurrak, bertan industri-pabilioia eraiki zezan. Urtegia desagertzeak hegoaldeko zuhaitz-igelaren habitata aldatuko zuelakoan, fiskalak eginbideei hasiera eman zien, gune horretan egingo diren proiektuek igelaren iraupena arriskuan jarriko zuten edo ez aztertzeke. Horiek horrela, Gipuzkoako Diputazioak anfibioa babestuko duen agindu forala onartu zuen. Fiskalaren hitzetan "administrazioak hegoaldeko

zuhaitz-igelaren iraupena segurtatzeko eta bizi-baldintzak eta habitata hobetzeko beharrezko uste izan dituen jarduketak martxan jarri ditu". Planak Mendizorroztz mendiaren hegalean urtegiak egitea proposatzen du, horrela hegoaldeko zuhaitz-igelaren ugaltze-guneak ugaritu egingo dira batetik eta, bestetik, hirigune industrialetik gertu dagoen lekuan, eta leku bakarreen gainera, bizitzeak izan ditzakeen arriskuetatik urrundu egingo da igela. (...)

Informazio-iturria: El Diario Vasco, 2000/01/13

# Zuhaitz-igelarekin bueltaka

**Arturo ELOSEGI**

Biologia zientzietan lizentziatua

Hegoaldeko zuhaitz-igela kantu ozeneko igeltxo berdea da, Europako hego-mendebaldean bizi dena. Euskal Autonomia Erki-degoak populazio txiki eta isolatu bat besterik ez du, Igeldo inguruan. Populazio hau hemezortzigarren mendeaz gero ezaguna da, baina geroztik gainbehera doa, eta gaur egun Gurelesa enpresak Donostian duen urtegi txiki batean bakarrik ugaltzen da. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak galtzeko arriskuan dagoela kontsideratu zuen, igel hauek harrapatzea edo beren habitata andeatzea galarazi egin zuelarik. Zuhaitz-igelaren ugaltoki bakarra, dena den, presio urbanistikoaren menpe erori zen. Zenbaitek urtegia biotopo babestua izendatzea proposatu zuen, baina Foru Aldundiak nahiago izan zuen putzu berriak eraikiz igela berreskuratzeko plana martxan jartzea. Berriki, Gipuzkoako Ingurugiro Fiskaltzak plana egokitzen jo du, populazioaren bizi-raupena bermatu ez ezik, haren hedatzea eta emendatzea ziurtatzen duelakoan.

Nik, igelen gisan, deus gutxi dakit legeriaz, baina berriak zenbait kezka sortu dizkit. Hegoaldeko zuhaitz-igelaren berreskurapen-plana ez da txarra, populazioa ugaltoki bakarreen mantentzea oso arrisksua baita. Dena den, planak eskaintzen dituen bermeei buruz ez naiz fiskala bezain baikor. Putzuak eraikitzea gauza erraza izan daiteke, baina animalia basatia han arrakastaz ugaltzea oso bestelako kontua da. Horretarako, uraren kalitate eta tenperatura egokiaz gain, flora eta fauna bereziak putzua kolonizatu egin behar du (horrek denbora behar izaten du), predatzaileen presioak txikia izan behar du, eta beste hainbat baldintza bete behar dira. Espezie bakoitzak bere eskakizun ekologiko propioak ditu, gehienetan ezezagun zaizkigunak. Honen lekuko dira mundu osoan zehar hainbat espezieren errekupezioplanek izan dituzten porrot sonatuak. Ordesako basahuntzarena azken adibide mingarria besterik ez da. Hortaz, populazio horren biziraupena bermatzekotan, putzu berriak eraiki behar dira,

eta inguruko habitata egokitu behar da. Baina gainera, eta hau funtsezkoa da, putzu berrietan igelak zaharreen bezainbesteko arrakasta duela ikusi arte ez daiteke ugaltoki zaharra suntsitu edo kaltetu. Horretarako, noski, ugaltoki horietan lortzen den kume-kopurua zehatz neurtu behar da, eta horrek denbora eskatzen du, anfibioen arrakastak gorabehera handiak izan baititzaite urterik urtera. Beraz, espeziearen iraupena ziurtatzeko ez da aski hari ugaltoki berriak eskaintzea; aitzitik, bere ugaltoki-arrakasta mugatzen duten faktoreak aztertu behar dira, eta hauek kontrolatu, populazioaren egoerak hobera egiten duela bermatu arte. Orduan bakarrik izan daiteke onargarria habitataren zati bat suntsitzea. Espero dezagun Foru Aldundiak eraikiko dituen putzuek igel asko erakartzea, eta Igeldoko gauak igel-kantuz alaitzea. Baina hori horrela dela bermatu bitartean, eska dezagun Gurelesaren urtegia errespetatzea.